

LEIHATILA

Maite Gonzalez Esnal ■ Idazlea

Irakurleak urritzen?

Galdera, gogaikarria eta zentzugabea izanagatik ere, salmentek arduratuta batzuek, «ilustratu» senak eraginda besteek, gauza da galdera egin egiten dela. Zergatik jendeak ez du irakurtzen? Liburuaren onurak non-nahi eta erruz aldarrikatzen diren garaiotan, zergatik egin du gora irakurtzen ez dutenen kopurua? 1999ko ikerketaren arabera ehun biztanletatik 45ek ez zuten libururik ukitu; 2000koan egoera larriagotu egin da: kopurua 47ra igo delarik.

Aurrera baino lehen argi dezadan datu hau Espainiako Gremio de Libreros-ek agindutako azterketak eman duela; nolahi, espero dut ez gehiegikeriatzat ez borondate ezkortzat hartuko dela, esaten badut gurean ere antzeko joera sumatzen dela. Zalantza bat daukat halere: libururik ukitu duen % 53aren artean, ez al dira egongo erosi gabe liburuak mailegatzten dituzten irakurle porrokatuak? Merkatuko legeak ia ororen neurri bihurtu diren garaiotan, ez al ditu estatistiken numeroak ez ezik, geu ere itsutzen?

Baina eman dezagun egia dela datua. *Eta?* Xaxatuko lidake liburuzaleon tema ez darabilen batek argudiotik tiraka, trufaka gainera. Bada, atzera egitea dela erantzungo nioke. Liburuak gizakion betiko galderei, betiko kezkei erantzunak aurkitzen laguntzen digun heinean, bizitzeko lagungarri, zernahitarako prest daukagun adiskide mina ere badela. Onura unibertsala dela. Orduko denborak! Eta argudioari darion kutsu fundamentalistak lotsatuta instantean isildu beharko nuke, belau-naldi baten ikusmolde desitxuratua dela ohartu eta onartuta.

Nago, gure belaunaldiko asko liburuaren laguntzaz eta aitakiaz egin ginela intsumiso, eta oraingo errealitate haizea bera bezain aldakorraz, ez garela jabetzen. Edo ez du gu amore eman nahi, are deitoragarriagoa dena.

Duela gutxi, irakasle batek nire konplizitate bila, ikasleak aurrean zeudela eta nire liburu baten inguruan solastatu ondoren, libururen bat gomendatzeko eskatu zidan. Urtetako biografia bibliografikoa, onerako eta txarrerako, nire baitan, nire bizkar, eta baita mihi puntan ere daraman horietakoa izaki, mitin sutsu bat atera zitzaidan: *irakur itzazue gurasoen liburuak*.



STRINGER / EPA

Ume batzuk uholdeak suntsitutako liburutegi bateko aleekin.

Kendu iezazkiezue, nirekin egin duzuen bezala komentatu beraiekin irakurri ondoren. Barre algarak eta orroak entzun ziren. Egon zen ere begira-begira gelditu zitzaidana, begiak dir-dir eginda. Intsumisiorako deia izan gabe —hain inozoa ez naiz eta—, zerbait dibertigarria entzun zuten nonbait, eta *irakurri baino aspertu nahiago* dutenek salbu, giro alaitsuan agurtu ninduten andereñoak enkontrua bukatutzat eman zuenean.

Etixerako bidean pentsatu nuen instituzioak, familiarena barne, mezu kontraesankorrek ematen tematu direla. Irakurtzea oso gauza ona dela esan egiten da, ordea, eskola ume gutxi ikusten dituzte nagusiak, karakter sorta xume baten gonbitari jarraiki, paradisu artifizialetan barrena bidaian. Hemen ere balio duena exenplua da, ez hitz potoloak. Horregatik askok musikaren emozio elektrikoa nahiago. Beharbada, alferrik gabiltza irakurzaletasunaren kanpainetan nagusiak ere bustitzen ez diren bitartean.

ZINEMA. Gidoia aktoreengan pentsatuz idatzi zuen zuzendariak



EGUNKARIA

Liotti, Molina, Nimri, San Juan, Salazar (zuzendaria), Cervera, Peña eta Casal, atzo, Berlinen.

Almodovar gogorarazi du Salazarren lanak, Berlinen

Harrera ona izan du Ramon Salazarren lehendabiziko film luzeak

Agentziak | BERLIN

Goxo hartu zuten atzo Berlingo Nazioarteko Zinemaldiko sail ofizialean Ramon Salazar espainiar zinemagilearen *Piedras* filma. Pedro Almodovaren zinemagintza ekarri zion gogora bati baino gehiagori Salazarren lehen film luzeak, baina lanaren kalitateak ez zuen inoren alde-tik aitzakiarik izan.

Francois Ozonen *8 Femmes*-en aurkezpenak bezala —Catherine Deneuve, Isabelle Huppert eta Fanny Ardant bildu zituen hark—, *Piedras*-enak ere emakumezko aktore ugariren parte-hartzea izan zuen: Angela Molina, Antonia San Juan, Najwa Nimri, Vicki Peña, Monica Cervera eta Maria Casalek hartu zuten parte atzoko aurkezpenean, Daniele Liotti gizonezko aktorearekin eta Ramon Salazar zuzendariarekin batera.

«Nire filma ez da soilik emakumeen ingurukoa, emetasunari berari buruzkoa baizik», azaldu zuen Salazarrek atzoko aurkezpenean, «dela emakumeengan dela gizonezkoengan ageri den emetasunari buruzkoa». Emetasun horren adierazgarri behinenak, Salazarren ustez, sentimenduak agertzeko beldurrik ez izatean du funts nagusia.

Malagan sortua da Salazar,

RAMON SALAZAR

Zinema zuzendaria

«'Piedras' ez da soilik emakumei buruzkoa, emetasunari buruzkoa baizik, dela gizonena dela emakumeena»

eta *Hongos* film laburraren arrakastak ate ugari zabaltu zizkion. «Teilatutik ekin nion etxea egiteari», azaldu zuen atzo Salazarrek, *Piedras*-en filma buruz mintzatzean. «Nire lankide izatea nahi nuen emakumezko aktoreen zerrenda egin nuen lehenik eta gero haientzako rolen bila hasi. Horrela sortu zen gidoia».

«Salazar ideiak oso argi dituen zuzendaria da», Najwa Nimri bizkaitar aktorearen ustez. «Itxura batean pertsonaia bat ematen dizu opari, nahi duzuna egin dezazun, baina azkenean berak nahi duena egiten duzu. Bera da izarra».

Internet sarean filmatutako lana

Urtarrilean Sundanceko Zinemaldian estreinatu ondoren, Berlinen ikusi da lehen aldiz Europar Jed Weintrob-en *On line* filma, zuzenean sarean fil-

NAJWA NIMRI

Aktorea

«Salazarrek oso argi ditu ideiak. Itxuraz nahi duzuna egiten uzten badizu ere, berak nahi duena egiten duzu»

matutako lana. Filmeko sei pertsonaiek webgune pornografiko baten bitartez ezagutzen dute elkar. Internet bidezko kontaktu erotiko anonimoek ohiko harreman afektiboetan eragin dezaketen haustura du kontagai lanak.

1993az geroztik teknologia berriekin ari da jolasean Weintrob. «Menpekotasun arazoak izan ditut Internetekin», aitortu du zinemagile independenteak. «Egun oso bat eta bere gaua pasa ditzakezu sudurra handik atera gabe. Azken batean, osasunaren galgarri izan daiteke. Internet bidezko esperientzia sexual batzuk guztiz adiktiboak dira».

Russell Crowe aktoreak ez du egonaldi oso goztoa Berlin-go, hango prentsak dioenez. Oscarretarako zortzi izendapen jaso arren, Berlinen ez dute ondo hartu *A Beautiful Mind*.